

# INBERTSIO-ERABAKIEK JASANGARRITASUN-FAKTOREETAN ERAGINDAKO

## KONTRAKO GORABEHEREI BURUZKO ADIERAZPENA

---

FINANTZA-MERKATUETAKO PARTE-HARTZAILEA: KUTXABANK SA – LEI: 549300U4LIZV0REEQQ46

---

### LABURPENA

KUTXABANK SA erakundeak (LEI: 549300U4LIZV0REEQQ46) Zorroen Kudeaketa Diskrezionaleko Zerbitzua ematen die bere bezeroei. Zerbitzu horren bitartez, Kutxabanke bere bezeroen inbertsioak bideratu eta gauzatu ditu, Kudeaketa Delekatuko Zorroen Inbertsio Batzordearen bidez. Batzorde horretan, zorroetan zehaztutako arrisku-profiletarako egokitzat jotzen diren inbertsio-erabakiak hartzen dira. Zorro delegatuek gizartearekiko inbertsio arduratsurako (GIA) irizpideak sustatzen dituztela kontuan izanik, finantza-irizpideez gain, ingurumen- eta gizarte-irizpideak eta gobernantza onari loturikoak ere hartzen dira aintzat inbertsioak esleitzeko prozesuan. Horretarako, inbertsio-fondo bakoitzari buruz dagoen informazioa hartzen da kontuan.

Jarraian, zorro delegatuek Kutxabank Gestióneko fondoan bitartez bideratzen dituzten inbertsioaren jasangarritasun-faktoreetan izandako kontrako gorabehera nagusiei buruzko adierazpena azalduko dugu; kudeatzaile horren fondoak zorro delegatuen inbertsio nagusia dira. Zehazki, jasangarritasun-faktoreen gaineko kontrako gorabehera nagusiei buruzko adierazpen hau 2022ko urtarrilaren 1etik 2022ko abenduaren 31ra bitarteko erreferentzia-aldiari dagokio.

2022ko ekitaldian, sozietate kudeatzaile honek 2022/1288 (EB) Erregelamendu Delekatuaren I. eranskineko 1. koadroko kontrako gorabeheren adierazleak (nahitaezkoak) eta 2. eta 3. koadroetako batzuk (boluntarioak) izan ditu kontuan, hainbat modutan, inbertsio-erabakiak hartzeko:

- Baztertzeko irizpideen barruan sartzen dira, adibidez, biodibertsitatea babesteko eremuetan egiten diren jarduerak edo arma eztabaidagarriekiko esposizioa.
- Best in class inbertsioak hautatzeko prozesuaren barruan balorazio-irizpidetzat txertatu dira, hala nola berotegi-efektuko gasen isurien intentsitatea edo inbertitzen den enpresetako zuzendaritza-batzordearen genero-aniztasuna.
- Kontrako gorabehera horiekin lotura estua duten adierazleak kontuan hartzeagatik, hala nola energia berriztaezinaren ekoizpenaren eta kontsumoaren proportzioa edo Nazio Batuen Mundu Itunaren printzipioak eta ELGAren enpresa multinazionalerako Gidalerroak betetzeko mekanismorik eza.

Zehazki, 2022/1288 (EB) Erregelamendu Delekatuaren I. eranskineko 2. eta 3. tauletako honako borondatezko adierazle hauek hartu ditugu aintzat 2022ko ekitaldian:

- Ingurumen-arloko 4. KGNa, Parisko Akordiora egokitzearen, karbono-isurketak murrizteko ekimenik ez duten enpresetan egindako inbertsioen ehunekoarekin lotuta.

- 1., 2., 3. eta 22. KGN sozialak, lan-istripuak prebenitzeko politikarik ez duten enpresei, istripu-ratioei, lesio, istripu, heriotza edo gaixotasunengatik galdutako denborari eta EBrekin lankidetzan jarduten ez duten zerga-jurisdikzioei dagokienez.

Obligatorios					✖	✔	🌱	*		
Ámbito	Pilar	Tema	PIA	Indicador	Exclusión	Integración	Indirecto	Otros		
Empresas	Medioambiental	Emisiones de gases efecto invernadero (GHG)	1	Emisiones GHG			● n/a			
			2	Huella de carbono			● n/a			
			3	Intensidad de carbono		●		● n/a	1)	
			4	Exposición a combustibles fósiles		🌱		● n/a		
			5	% de energía no renovable consumida y producida				● n/a		
			6	Intensidad de consumo de energía con impacto climático				● n/a		
			7	% con impacto negativo sobre biodiversidad		🌱		● n/a	2)	
			8	Intensidad emisiones de agua		🌱	●	● n/a		
			9	Intensidad de residuos		●	●	● n/a		
			10	% con violación de los principios		●		● n/a		
	Social	Principios de la ONU y OCDE	11	% sin políticas de cumplimiento			● n/a	3)		
			12	Brecha salarial de género			● n/a			
			13	% mujeres consejeras		●		● n/a	4)	
			14	% exposición armas controvertidas		●		● n/a		
			Medioambiental	Intensidad de carbono	15	Intensidad de carbono			● n/a	5)
					16	Violación tratados internacionales, principios ONU, etc			● n/a	6)
			Social	Violación a combustibles fósiles	17	Exposición a combustibles fósiles			n/a	7)
					18	Exposición a energías no eficientes			n/a	
Soberano	Medioambiental	Intensidad de carbono	15	Intensidad de carbono		● n/a	5)			
Activos reales	Medioambiental	Exposición a combustibles fósiles	17	Exposición a combustibles fósiles			n/a	7)		
			18	Exposición a energías no eficientes			n/a			

\* Tanto en la parte medioambiental como social, integración adicional mediante límites internos: bonos verdes, sociales y sostenibles  
 \*\* Existe una política de implicación - diálogo con las empresas y voto - donde se tienen en cuenta estos puntos  
 1) La variable elegida para integrar GHG es intensidad GHG, que recoge de una u otra manera los 6 primeros PIAS. Además, existen exclusiones a empresas con actividad elevada en carbón térmico. Seguimiento  
 2) Existen exclusiones sobre involucración en arenas petrolíferas y esquistos. Seguimiento  
 3) Implícitamente en cumplimiento PIA 10  
 4) Indirectamente por el acceso de mujeres a puestos dirección. Seguimiento  
 5) Forma parte de la calificación ESG del país. Seguimiento  
 6) Forma parte de la calificación ESG del país. Además existen políticas de exclusión por sanciones. Seguimiento  
 7) Sin activos reales

Voluntarios					✖	✔	🌱	*
Ámbito	Pilar	Tema	PIA	Indicador	Exclusión	Integración	Indirecto	Otros
	Medioambiental	Emisiones. Inversiones en empresas sin iniciativas de reducción de las emisiones de carbono	4	Porcentaje de inversiones en empresas sin iniciativas de reducción de las emisiones de carbono dirigidas a ajustarse al Acuerdo de París			● n/a	
			1	Políticas de prevención de accidentes laborales			●	**
	Social	Accidentes laborales	2	Ratio de accidentes (media ponderada)			●	**
			3	Tiempo perdido por accidentes, etc.		●	●	**
		Impuestos	22	Jurisdicciones no colaboradoras con la UE (impuestos)	●		●	**

\* Tanto en la parte medioambiental como social, integración adicional mediante límites internos: bonos verdes, sociales y sostenibles  
 \*\* Existe una política de implicación - diálogo con las empresas y voto - donde se tienen en cuenta estos puntos  
 En el ámbito de las salud y bienestar existen exclusiones relacionadas con el producto "tabaco"  
 En el ámbito laboral, relacionado con las condiciones en el trabajo y la retención de talento, se tiene en cuenta el ratio de rotación de los empleados



**Eredu propioaren mailaketa kualitatiboa; azalpena:**

- Berde argia: KGN adierazleak zeharka txertatzea (modu tangenzialean aintzat hartutako aldagaiak, inplikazio-politikak, eztabaiden kudeaketa, barne-mugak eta abar)
  - Berde iluna: KGN adierazleak zuzenean txertatzea (ereduan sartutako aldagai erlazionatuak, bazterketa-politikak eta abar)
- Bi kasuetan, ereduaren erabilitako aldagaia bat badator zehazki KGN adierazlearekin: zirkulu osoa. Bestela, zirkulu-erdia.

## JASANGARRITASUN-FAKTOREEN GAINeko KONTRAKO GORABEHERA NAGUSIEN DESKRIBAPENA

Jasangarritasun-adierazlea kontrako gorabeherei dagokienez	Parametroa	Gorabehera 2022. urtea	Gorabehera 2021. urtea	Azalpena	Hurrengo erreferentzia-aldirako hartutako neurriak, aurreikusitako neurriak eta finkatutako helburuak
<b>Inbertitzen den enpresetako inbertsioetan aplikatu beharreko adierazleak</b>					
KLIMA-ALDAKETAREKIN LOTUTAKO ADIERAZLEAK ETA INGURUMENAREKIN LOTUTAKO BESTE ADIERAZLE BATZUK					
Berotegi-efektuko gasen (BEG) isurketak	1. BEG isurketak	1. eremuko BEG isurketak	212.125,33		
		2. eremuko BEG isurketak	59.765,33		
		3. eremuko BEG isurketak	1.786.751,25		
		BEG isurketak, guztira	2.058.618,35		
	2. Karbono-aztarna	Karbono-aztarna	605,13		
	3. Inbertitzen den enpresetako BEG intentsitatea	Inbertitzen den enpresetako BEG intentsitatea	841,13		
4. Erregai fosilen sektoreko enpresa aktiboekiko esposizioa	Erregai fosilen sektoreko enpresa aktiboetan egindako inbertsioen proportzioa	2,81			
5.1. Energia berriztaezinaren kontsumoaren proportzioa	Energia berriztaezinaren kontsumoaren proportzioa inbertitzen den enpresetan, energia-iturri berriztaezinetatik datorrena, energia-iturri berriztagarriekin alderatuta (proportzioa energia-iturri guztiekiko)	61,36			

	5.2 Energia berriztaezinaren ekoizpenaren proportzioa	Energia berriztaezinaren ekoizpenaren proportzioa inbertitzen den enpresetan, energia-iturri berriztaezinetatik datorrena, energia-iturri berriztagarriekin alderatuta (proportzioa energia-iturri guztiekiko)	23,43			
	6. Energia-kontsumoaren intentsitatea, klima-inpaktu handiko sektorearen arabera	Energia-kontsumoa GWh-tan, inbertitzen den enpresen diru-sarreraren milioi EUR bakoitzeko, klima-inpaktu handiko sektorearen arabera	26,92			
Biodibertsitatea	7. Biodibertsitatea babestu beharreko eremuetan eragin negatiboa duten jarduerak	Egoitza edo eragiketak biodibertsitatea babestu beharreko eremuetan edo eremu horietatik gertu dituzten enpresetan egindako inbertsioen proportzioa, enpresa horien jarduerak zona horietan eragin negatiboa dutenean	2,13			
Ura	8. Uretara egindako isurketak	Inbertitzen den enpresek uretara isuritako tonak, inbertitutako milioi EUR bakoitzeko (batezbesteko haztatua).	0,18			
Hondakinak	9. Hondakin arriskutsuen eta hondakin erradioaktiboen ratioa	Inbertitzen den enpresek sortutako hondakin arriskutsuen eta hondakin erradioaktiboen tonak, inbertitutako milioi EUR bakoitzeko (batezbesteko haztatua)	3,56			
LANEKO GAI EI ETA GAI SOZIALEI, GIZA ESKUBIDEEN ERRESPETUARI ETA USTELKERIAREN ETA EROSKERIAREN AURKAKO BORROKARI BURUZKO ADIERAZLEAK						
Laneko gaiak eta gai sozialak	10. Nazio Batuen Mundu Itunaren printzipioak eta Ekonomia Lankidetzaren eta Garapenerako Erakundearen (ELGA) Enpresa Multinazionalentzako Gidalerroak urratzea	Nazio Batuen Mundu Itunaren printzipioak eta ELGaren Enpresa Multinazionalentzako Gidalerroak urratzearekin lotuta egon diren enpresetan egindako inbertsioen proportzioa	0,34			

	11. Nazio Batuen Mundu Itunaren printzipioen eta ELGaren Enpresa Multinazionalerako Gidalerroen betetze-mailaren jarraipena egiteko prozesurik eta mekanismorik eza	Nazio Batuen Mundu Itunaren printzipioen eta ELGaren Enpresa Multinazionalerako Gidalerroen betetze-mailaren jarraipena egiteko politikarik ez duten edo Nazio Batuen Mundu Itunaren printzipioen eta ELGaren Enpresa Multinazionalerako Gidalerroen urraketak lantzeko erreklamazioak edo kexak kudeatzeko mekanismorik ez duten enpresetan egindako inbertsioen proportzioa	17,66			
	12. Gizonen eta emakumeen arteko soldata-arrakala, doitu gabe	Inbertitzen den enpresetako gizonen eta emakumeen arteko batezbesteko soldata-arrakala, doitu gabe	22,88			
	13. Genero-aniztasuna zuzendaritza-taldean	Zuzendaritza-taldeko emakume kopuruaren eta zuzendaritza-taldeko kideen guztizko kopuruaren (gizonak eta emakumeak) arteko proportzioa inbertitzen den enpresetan	35,79			
	14. Arma eztabaidagarriekiko esposizioa (pertsonek aurkako minak, barreiatze-munizioak, arma kimikoak eta arma biologikoak)	Arma eztabaidagarrien fabrikazioarekin edo salmentarekin lotutako enpresetan egindako inbertsioen proportzioa	0,00			
<b>Erakunde subiranoetan eta nazioz gaindiko erakundeetan egindako inbertsioetan aplikatu beharreko adierazleak</b>						
Ingurumen-arlokoak	15. BEGen intentsitatea	BEGen intentsitatea inbertsioa jasotzen duten herrialdeetan	0,19			
Sozialak	16. Inbertsioa jasotzen duten herrialdeak, urraketa sozialak egiten dituztenak	Inbertsioa jasotzen duten herrialdeen kopurua, nazioarteko itun eta hitzarmenetan, Nazio Batuen printzipioetan eta, hala badagokio, nazioko legeetan jasotako urraketa sozialak egiten dituztenak (kopuru absolutua eta kopuru erlatiboa, inbertsioa jasotzen duten herrialde guztien artean zatituta)	2,50			

## 2. koadroa

**Klima-aldaketarekin lotutako adierazleak eta ingurumenarekin lotutako beste adierazle batzuk**

Jasangarritasunaren gaineko kontrako gorabehera	Jasangarritasun-faktoreen gaineko kontrako gorabehera (kualitatiboa edo kuantitatiboa)	Parametroa	Gorabehera 2022. urtea	Gorabehera 2021. urtea	Azalpena	Hurrengo erreferentzia-aldirako hartutako neurriak, aurreikusitako neurriak eta finkatutako helburuak
<b>Inbertitzen den enpresetako inbertsioetan aplikatu beharreko adierazleak</b>						
KLIMA-ALDAKETAREKIN LOTUTAKO ADIERAZLEAK ETA INGURUMENAREKIN LOTUTAKO BESTE ADIERAZLE BATZUK						
Isurketak	4. Karbono-isurketak murrizteko ekimenik ez duten enpresetan egindako inbertsioak	Parisko Akordiora egokitzearen, karbono-isurketak murrizteko ekimenik ez duten enpresetan egindako inbertsioen ehunekoa	16,95			

## 3. koadroa

**Laneko gaiak eta gai sozialei, giza eskubideen errespetuari eta ustelkeriaren eta eroskeriaren aurkako borrokari buruzko adierazleak**

LANEKO GAIEI ETA GAI SOZIALEI, GIZA ESKUBIDEEN ERRESPETUARI ETA USTELKERIAREN ETA EROSKERIAREN AURKAKO BORROKARI BURUZKO ADIERAZLEAK						
Jasangarritasunaren gaineko kontrako gorabehera	Jasangarritasun-faktoreen gaineko kontrako gorabehera (kualitatiboa edo kuantitatiboa)	Parametroa	Gorabehera 2022. urtea	Gorabehera 2021. urtea	Azalpena	Hurrengo erreferentzia-aldirako hartutako neurriak, aurreikusitako neurriak eta finkatutako helburuak
<b>Inbertitzen den enpresetako inbertsioetan aplikatu beharreko adierazleak</b>						
Laneko gaiak eta gai sozialak	1. Lantokiko istripuen prebentzio-politikarik ez duten enpresetan egindako inbertsioak	Lantokiko istripuen prebentzio-politikarik ez duten enpresetan egindako inbertsioen ehunekoa	34,43			

	2. Istripu-tasa	Inbertitzen den enpresetako istripu-tasa (batezbesteko haztatua)	0,59			
	3. Lesio, istripu, heriotza edo gaixotasunagatik galdutako egun kopurua	Lesio, istripu, heriotza edo gaixotasunagatik galdutako lan-egun kopurua inbertitzen den enpresetan (batezbesteko haztatua)	38.275,02			
<b>Erakunde subiranoetan eta nazioz gaindiko erakundeetan egindako inbertsioetan aplikatu beharreko adierazleak</b>						
Gobernantza	22. Lankidetzan jarduten ez duten zerga-jurisdikzioak	EBren jurisdikzio-zerrendatik zerga-gaietan lankidetzan jarduten ez duten jurisdikzioetan egindako inbertsioak	0,00			

## JASANGARRITASUN-FAKTOREEN GAINEN KONTAKO GORABEHARA NAGUSIAK ZEHAZTEKO ETA LEHENESTEKO POLITIKEN DESKRIBAPENA

Kutxabank SAK baditu jasangarritasun-faktoreen gaineko kontrako gorabehera nagusiak zehazteko eta lehenesteko politikak:

- a) Politiken azken eguneratzea Zuzendaritza Batzordean onartu zen 2021/06/24an.
- b) Politika horiek aplikatzeko erantzukizuna Zorro Delegatuen Inbertsio Batzordean ezartzen da. Horrela, bada, Zorro Delegatuek inbertsioak egiten dituzten fondoek ezaugarri jasangarrien azterketa eta aldizkako jarraipena egiten da Batzorde horretan. Gobernantzari dagokionez, Prozedura Eskuliburu eguneratu bat dago, eta aldaketak Kutxabaneko Txikizkako Batzordean onartzen dira.
- c) Kontuan izanik Zorro Delegatuen barruan gehienbat Kutxabank Gestiónen fondoak sartzen direla, jarraian, Kutxabank Gestiónek borondatezko adierazleak hautatzeko eta nahitaezko adierazleak bitartez ebaluatutako kontrako gorabehera nagusiak detektatu eta ebaluatzeko erabilitako metodoak azalduko ditugu. 2022an erabilitako eredu kalibrazioaren emaitza izan ziren, kudeatzailearen prozesuetan kontrako gorabehera nagusien adierazleak modu egokian kontuan har zitzaten, batez ere bazterketaren eremuan, integrazioaren eremuan –besteak beste, urarekin, hondakinekin edo dibertsitatearekin lotutako aldagai berrien bitartez– eta inplikazio-politikaren eremuan. Hona hemen ondorioak:

### Enpresetan:

- Ingurumenaren oinarria ondo jasota zegoen IGG ratinga esleitzeko barne-ereduan, berotegi-efektuko gasen (“BEG” edo GHG –Green House Gas– ingelesez) gaiari dagokionez, eta partzialki biodibertsitateari dagokionez. Hala ere, uraren eta hondakinen gaitan ordezkaritza txikia zegoen, eta, beraz, integrazioaren barne-ereduan aldagai bana txertatu ziren (uraren intentsitatea (8. KGN, nahiz eta bazterketa-irizpideetan partzialki jasotzen zen) eta hondakinen intentsitatea (9. KGN)).

Borondatezko KGNari dagokionez, Parisko Akordiora egokitzeko inbertsioen kudeaketarako konpromiso globala sendotzen zuen alderdi bat aukeratu zen, 2. koadroko 4. KGN onartu baitzen: “Parisko Akordiora egokitzearen, karbono-isurketak murrizteko ekimenik ez duten enpresetan egindako inbertsioen ehuneko”. Kontrako efektu hori arintzeko zera dakar, bonu berde eta jasangarrien jaulkipenetan barne-mugetan gehiegizko haztapena onartzen dela, baita inplikazio-politikaren ondoriozko efektu positiboak ere, klima-trantsizioaren eta ingurumena zaintzearen aldeko boto- eta elkarrizketa-irizpideak dituen aldetik.

- Oinarri sozialean, estandar globalen eta arma eztabaidagarrien adierazleak ondo jasota zeuden bazterketa-politikan. Genero-aniztasunaren alderdian, IGG ratinga esleitzeko barne-ereduan aldagai bat badagoen arren, aldagai hori aldatu egin zen KGN adierazlearekin bat etortzeko, eta, beraz, emakume



enplegatuen ehunekoa kontuan hartzetik Administrazio Kontseiluko emakumeen ehunekoa kontuan hartzera igaro zen (13. KGNa). Horrek kontrako inpaktuen beste adierazle batzuetako zeharkako inpaktua ere hobetu zuen, hala nola generoaren araberako soldata-arrakalan (12. KGNa, nahitaezkoa).

Borondatezko KGN sozialei dagokienez, 2021eko ereduan jada jasota zeuden alderdiei eutsi egin zitzairen. Horrela, bada, lan-istripuei buruzko datuak (3. koadroko 1., 2. eta 3. KGNak) kontuan hartu dira, eta paradisu fiskaletan helbideratutako jaulkitzaileak eta jaulkipenak kanpoan utzi dira (22. KGNa).

#### **Subiranoetan:**

- Ingurumenaren oinarria eta oinarri soziala inplizituki jasotzen dira esleitutako rating-ean (karbono-intentsitatea da kontuan hartzen den aldagaietako bat) eta bazterketa-politikan.

#### **Aktibo errealetan:**

- Ez dago aktibo errealen zuzeneko posiziorik zorroan.

Kontrako gorabehera nagusiak arintzeko egin daitekeen jarduketa handiena, per se, bazterketak direnez, eta zorroetako inbertsioen hautaketa baldintzatzen duten IGG ratingean kontuan hartzen direnez, kontrako gorabehera nagusi horiek gertatzeko probabilitatea eta horien larritasuna minimizatu daiteke, potentzialki saihestezin izatea ere barne.

Ez dago, beraz, aipatutako metodoekin lotutako errore-marjinarik.

- d) Erabilitako datu-iturriei dagokienez, Zorro delegatuen barruan sartzen diren fondoak gehienbat Kutxabank Gestiónen fondoak direla kontuan hartuta, sozietate kudeatzaile horrek datu-iturri horiek erabiltzen ditu kontrako gorabehera nagusiak detektatzeko eta ebaluatzeko:
- Sustainalytics (Morningstar-en enpresa): analisi-hornitzaile bat da, jaulkitzaile pribatu zein publikoetan jasangarritasun-arriskuak neurtzen espezializatuta dagoena, eta jaulkitzaile horiek ingurumenean, gizartean eta gobernantza korporatiboan (IGG) egindako jarduna aztertzen du.
  - MorningStar: Estatu Batuetako enpresa bat da, finantza-ikerketari eta inbertsioen kudeaketari lotutako askotariko zerbitzuak eskaintzen dituena; tartean, inbertsio-fondoan kalifikazioa jasangarritasun-gaietan.

Ez da gertatu erabilitako adierazleren bati buruzko informazioa eskuragarri ez egotea.

## INPLIKAZIO-POLITIKAK

Gaur egun, Kutxabankek ez die ematen bezeroei errenta aldakorreko aktiboen gaineko inbertsio-zerbitzurik, inbertsio-fondoen gainekoak baizik. Beraz, ezin ditu akziodunen eskubideak zuzenean baliatu, inbertsio-fondoetako akziodun izateagatik dituzten eskubideei dagokienez.

## NAZIOARTEKO ARAUEN ERREFERENTZIAK

Kutxabank, sortu zenetik, Mundu Itunaren bazkide sinatzailea –‘socio signatory’– da, Euskal Aurrezki Kutxen ibilbideari eutsita. Nazio Batuen Mundu Itunak zera eskatzen die enpresei eta erakundeei, beren estrategiak eta jardunak giza eskubideei, lan-arauei, ingurumenari eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko Hamar Printzipio unibertsalekin lerrotzeko. NBEren aginduz, sektore pribatuan Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) sustatzen dira. COP 25 agiriaren sinatzaile den aldetik, Kutxabankek paper nabarmena betetzen du isurketa gutxiko ekonomia baterako trantsizioan. Klima-aldaketaren aurkako borroka gure gizartearen funtsezko helburua da, eragina baitu sistemako eragile guztien inpaktu ekonomiko eta sozialetan. Horrek esan nahi du eredu ekonomikoa, produktiboa eta soziala eraldatu behar direla, arriskuak eta aukerak berriz definituta, eta Kutxabankek bere negozio-ereduan txertatuko ditu, arian-arian.

Bestalde, Kutxabank Gestión sozietateak, zorroaren barruan sartzen diren fondo gehienak kudeatzen dituen erakundea den aldetik, enpresa-jokabide arduratsuaren kodeak eta informazioaren komunikazioari eta behar bezalako arretari buruz nazioartean onartutako arauak betetzen ote diren neurtzen duten kontrako gorabeheren adierazle nagusiei dagokienez, nahitaezko 10., 11. eta 16. KGNekin datoz bat, eta horien kudeaketa aipatu da lehen:

- Nazio Batuen Mundu Itunaren printzipioak eta Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundearen (ELGA) Enpresa Multinazionalerako Gidalerroak urratzea, sozietateak bazterketa-irizpidetzat jotzen dituenak.
- Nazio Batuen Mundu Itunaren printzipioen eta Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundearen (ELGA) Enpresa Multinazionalerako Gidalerroen betetze-mailaren jarraipena egiteko prozesurik eta mekanismorik eza; kasu horretan, goian adierazitako KGNan sartzen da adierazlea.

- Erakunde subiranoetan eta nazioz gaindiko erakundeetan egindako inbertsioen barruan, aurrekoen baliokide izango litzatekeen adierazlea honako hau izango litzateke: herrialdeei buruzkoa izango da, nazioarteko itun eta hitzarmenetan, Nazio Batuen printzipioetan eta, hala badagokio, nazioko legeetan jasotako urraketak egiten dituzten eta inbertsioa jasotzen duten herrialdeak.

## KONPARAZIO HISTORIKOA

Atal honetan, finantza-merkatuetako parte-hartzaileek, baldin eta jasangarritasun-faktoreen gaineko kontrako gorabeherak deskribatu badituzte kontrako gorabeherari buruzko informazioa eman behar den aldiaren aurreko beste aldi bati dagokionez, «Jasangarritasun-faktoreen gaineko kontrako gorabehera nagusien deskribapena» atalean konparazio historiko bat egin behar dute informazioa jakinarazten den aldiaren eta informazioa jakinarazi den aurreko aldiaren artean eta, horrela, hurrenez hurren, informazioa jakinarazi den aurreko aldi bakoitzarekin (gehienez ere aurreko bost aldi).

2022ari buruzko informazio hori da 2022/1288 (EB) Erregelamendu Delegatuan jasotako argibideen arabera egiten den lehena. Erregelamendu horrek, bestek beste, aldizkako txostenetan ingurumen- edo gizarte-ezaugarriak sustatzeari buruzko informazioa aurkeztea arautzen du, eta, beraz, ezin da konparazio historikorik egin aurreko aldiekin.